

**OHAR METOLOGIKOA**  
**UDAL-BPGd-A**  
**Ezaugarri nagusiak**

**2026**

## 1. Sarrera

Eustatek urtero egiten dituen Kontu Ekonomikoen helburu nagusia sistema koherentea eta integratua eskaintzea da, kontabilitate nazionalari dagokionez, EAE eta haren lurralde historikoetarako erabilgarri dagoen informazio ekonomiko guztia barne hartuta.

Azken urteotan gero eta gehiago eskatzen dute informazio ekonomikoa lurraldeen arabera bereizita, eta zehazki udalerrriak, emateko, era horretan jarduera ekonomikoko fluktuazioen ondorioak ez ezik, agintariek aurrera eraman dituzten politika ekonomiko ezberdinek izandako eraginak ere gertutik ezagutzeko.

Euskal Estatistika Planean 170120 kodearekin jasotako sintesi-estatistika eragiketa honen helburua da, hain zuzen ere, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) udal eta eskualdeetako informazioa ematea, informazio sozioekonomiko zabala eta askotarikoa erabilia horretarako. Udal BPGd-k EAEko errealitate ekonomikoaren ahalik eta ikuspegirik osoena eskaini nahi du udalerrri bakoitzeko, **BPGd per capitari**, **Balio Erantsi Gordinaren banaketari** eta **Lanpostuei** dagokienez, EAEko eta haren lurralde historikoetako urteko Kontu Ekonomikoetan lortutako makromagnitudeekin guztiz bat etorrita.

## 2. Euskal Autonomia Erkidegoko udal-egitura

EAE, 2 milioi biztanle baino gehixeago edukita, 3 lurralde historikoz osatuta dago (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa). Guztira 251 udalerrri ditu, 20 eskualdetan banatuta. 2023ko zabalkundearekin, Usansolo udalerrria sartu da, Bizkaiko Lurralde Historikoan, Bilbo Handiko eskualdean Udalerrri horiek, beraz, lurralde historikoen arabera banatuta daude: 113 Bizkaian ( % 45), 88 Gipuzkoan ( % 35) eta 51 Araban ( % 20).

Arras heterogeneoa da udalerrri horien arteko dentsitatea eta biztanle kopurua; hori horrela, hiru udalerrrik baino ez dituzte 180.000 biztanle baino gehiago (hiru hiriburuak); 6 udalerrrik 50.000 baino gehiago dituzte, eta 180 udalerrrik 5.000 biztanle ere ez dituzte.

Bilbo Handiko eskualdea da hirigunerik populatuena, EAEko biztanle guztien erdiak edo biltzen baititu. Gipuzkoako lurralde historikoa homogeenagoa da erlatiboki, eta Araban, aldiz, bai biztanleak bai jarduerak batez ere hiriburuan –Gasteizen, alegia– pilatzen dira.

## 3. Zenbatetsitako jarduera ekonomikoak

EAEko eta haren lurralde historikoetarako **Urteko Kontu Ekonomikoetan** aldagai hauei dagokienez dagoen informazioa da udal-zenbatespenen abiapuntua: Barne Produktu Gordina, Balio Erantsi Gordina eta Eustatek jarduera ekonomikoa bereizten duen [86 jarduera-adarretako](#) bakoitzeko lanpostuak. 86 adarreko bereizketa horrek [EJSN-2009](#) Ekonomia Jardueren Sailkapenari jarraitzen dio, EAEko jarduera ekonomikoaren ezaugarrietara egokituta.

**Zenbatespen** horiek 2010eko Kontuen Europako Sisteman (KES-2010)<sup>1</sup> zehaztutako metodologiari jarraikiz egiten dira, non honako alderdi hauek jasotzen diren, besteak beste:

- Ikerketa eta Garapenerako gastuaren kapitalizazioa (I+G). KES-2010aren ustez I+Gko gastuak hurrengo ekitaldietako hazkunde ekonomikoa laguntzen du, eta horregatik, gastu bat bada ere, aktibo-inbertsiotzat hartu behar da. Horrela bada, hala I+Gko kanpoko gastua nola barneko ekoizpena kapital finkoaren eraketa gordin gisa erregistratu behar da hura erosten edo ekoizten den urtean. Hurrengo ekitaldietan dagokion kapital finkoaren kontsumoa kontabilizatuko da.
- Administrazio Publikoen sektorea mugatzea. KES-2010ak administrazio publikoei dagozkien unitateak identifikatzeko irizpideak ezartzen ditu. Horrek esan nahi du ezen, administrazio publikoaren EJSN-2009a ez duten enpresak, betiere dituzten kostuen ezaugarriak edo haien ekoizpenaren destinoa direla-eta mugaketa horren barruan sartzen badira, *Administrazio publikoa* jarduera ekonomikoaren barruan kontabilizatuko direla.
- Zeharka Neurtutako Finantza Bitartekaritzako Zerbitzuen (ZNFBZ) balioa esleitzea. ZNFBZak honela definitzen dira: finantza-erakundeek egiten dituzten mailegu- eta gordailu-eragiketetan eskuratzen dituzten zeharkako ordainsariak. Ordainsari horiek ez dira zuzenean ikusten, baina gastu gisa jaso behar dira, halere, haiek jasaten dituzten unitate ekonomikoetarako.
- Inputatutako alokairu-errenten produkzioaren estimazioa. Produkzio hori etxebizitza-jabeak, haren maizterra izango balitz, ordainduko lukeen alokairuaren balioespena da, eta jabetza-araubideko etxebizitza guztietarako kalkulatu behar da.
- Behatu gabeko ekonomiaren zenbatespena. Behatu gabeko ekonomia kontu nazionalak biltzeko erabilitako oinarritzko datu-iturrietan agian antzematen ez diren ekoizpen-jarduera guztiei dagokie. Besteak beste, legez kontrako jardueren zenbatespena egiten da, hau da, prostituzio antolatua eta droga-trafikoarena.

#### 4. Informazio-iturriak

Jarduera ekonomikoaren udal-zenbatespenean erabiltzen den oinarritzko informazioak estatistika- eta administrazio-iturriak hartzen ditu barnean. Horrez gain, Eustatek landutako informazioa eta kanpoko informazioa ere erabiltzen da, bai beste erakunde publiko batzuen, bai enpresa publiko eta pribatuena. Kanpoko informazioa erabiltzeko, ordura arte erabilitako informazioa erabilgarri dagoen aztertu behar da etengabe, eta egon litezkeen informazio-iturri berriak ere bilatu behar dira une oro.

Udal BPGd-ren zenbatespenean erabilitako informazio-iturri nagusiak multzo hauetan sar daitezke:

---

<sup>1</sup> [http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/esa\\_2010/introduction](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/esa_2010/introduction)

- **Urteko Kontu Ekonomikoak:** Eustatek Euskal Autonomia Erkidegorako eta haren lurralde historikoetako bakoitzerako lortutako Urteko Kontu Ekonomikoen datuetara egokitzen dira BPGd-ren eta lanpostuen udal-zenbatespenak.
- Eustaten **Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID):** EAEn jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten establezimendu eta enpresa guztien informazioa jasotzen du; jarduera ekonomikoen sektoreei buruzko oinarritzko egitura-informazioa ematen du. Honako aldagai hauek erabiltzen dira: **enplegua** eta **establezimendu kopurua** udalerri eta jarduera ekonomiko bakoitzeko (EJSN-2009ren arabera).
- Eustaten **Biztanleriaren gidazerrenda:** urtarilaren 1eko biztanleei buruzko udal-datuak erabiltzen dira, eta ondoz ondoko bi urteko batezbestekoa erabiltzen da interes-urteko batez besteko biztanleria lortu nahian.
- Eustaten **Etxebizitzaren gidazerrenda:** okupatutako etxebizitzak jasotzen ditu udalerri bakoitzeko. Nolanahi ere, eskura dagoen informazio berriena erabiltzen da.
- **Egitura-inkestak:** enpresen eta establezimenduen urteko datuak biltzen dituzten inkesta ekonomikoak. **Lanpostuak** eta **Balio Erantsi Gordina** dira erabilitako aldagaiak. Lehen mailako informazio-iturrien adibide gisa, Eustatek egindako egitura-inkesta ekonomiko guztiak daude, hala nola Industriaren inkesta, Eraikuntzaren inkesta, Zerbitzuen inkesta, Merkataritza eta konponketaren inkesta, Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika, etab.
- **Enpresa pribatuen eta publikoen udal-informazio ekonomikoa,** hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan aritzen diren enpresa estrategikoena. Askotariko aldagaien informazioa eskatzen diegu enpresa horiei, hala nola enplegua, zirkulazioa, salmentak, geltokiko bidaiari kopurua (bidaiarien edo salgaien tren-garraio enpresak), etab.
- **Udal-adierazleak:** Eustatek eta beste erakunde batzuek –publikoek eta pribatuek– egindako inkesten ondoriozko udal-informazioa. Adibide batzuk: elektrizitate- edo gas-kontsumoak (industria- eta bizitegi-erabilerarako), ur-kontsumoa, etab.
- **Administrazio-iturriak:** Eustatek erakunde publikoen datuak erabiltzen ditu, hala nola helburu estatistikoekin ustiatzen ari diren Gizarte Segurantzako afiliazio-datuak, zerga-informazioa, erregistro publikoetatik datorrena, hala nola jabetza-edo merkataritza-erregistroetatik, etab. zeharkako erabilerarekin udal-jarduera ekonomikoaren estimazioak egiteko.

## 5. Zenbatesteko prozedura

Zehaztutako jarduera ekonomikoaren 86 adarrak bereiz eta 251 udalerrietako bakoitzerako zenbatetsi dira **Balio Erantsi Gordina (BEGd)** eta **Lanpostuak** aldagaiei dagokienez.

Zenbatetsi beharreko jarduerak heterogeneoak direnez, horietako bakoitza zenbatesteko metodoa aldatu egingo da iturrien kopurua, kalitatea eta erabilgarritasuna zein den, bai eta kasu bakoitzean zer metodologia aplikatu den ere.

Oro har, metodologia hau da: adierazle bat (sinplea edo konposatua) zehaztea, Urteko Kontu Ekonomikoetan jarduera-adarrei buruz dagoen lurralde historikoetako informazioa udalerriko banatu ahal izan dadin.

Horretarako, lehenik eta behin, jarduera ekonomikoaren adar bakoitzean udalerriko banaketarako adierazlerik egokiena eraikitzeke oinarritzeko zer datu erabiliko diren zehaztu behar da; izan ere, erabilgarri dauden datuen arabera edo horiek eguneratuta dauden edo ez, aldatu egingo da tratamendua.

86 adarretako bakoitzerako banaketa-adierazlea zehaztuta, bigarrenik, adar horietako BEGd-ren eta Lanpostuen guztizkoak bereiziko dira **udalerri bakoitzeko**. Hala, adar ekonomiko bakoitzean erabilitako adierazleak EAEko 251 udalerrien artean banatuko ditu adar horren guztizkoak. Era horretan, udalerri bakoitzak balio bat esleituta izango du 86 jarduera-adarretako bakoitzean.

Ondoren, udalerri bakoitzari dagokion informazioa Eustatek estatistika ekonomikoetan erabiltzen dituen sektoreen eransketei jarraikiz elkartzen da ([A86](#), [A38](#), [A21](#), [A10](#) eta [A4](#)), eta azkenik, sektore horiek batuz lortzen da udalerriaren guztizko BEGd-a.

Halaber, produktuen gaineko zerga garbien zenbatespen bat eginez gero, udal BPGd-a lortu ahal izango dugu udalerri bakoitzean eskuratutako udal BEGd-an oinarrituta, eta, udal BPGd hori aintzat hartuta, **BPGd per capita** kalkulatu dugu, udal BPGd-ren zenbatekoa udalerri bakoitzeko biztanleez zatituta. Udalerri bakoitzeko **Lanpostuak** zenbatesteko, berriz, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID) erabiltzen da, zeinak barne hartzen baititu Urteko Kontu Ekonomikoek lurralde historiko eta adar bakoitzeko adierazten dituzten guztizkoak. Biztanleriari buruzko kopuruak, berriz, Eustaten Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Gidalerroak ematen ditu.

Azkenik, datuak hobeto interpretatzeko, udal BPGren eta udal errentaren kontzeptuen arteko bereizketa azpimarratu behar da. BPG produkzioari eta lurraldean aberastasuna sortzeari lotuta dago, eta produkzio-establezimendu garrantzitsuak dituzten udalerrietan kontzentratzen da. Errenta, aldiz, pertsonen eta haien bizilekuari lotuta dago.